

Pil
bil



1998ko Martxo

9. zenbakia



inprimategia • tfnoa. 943 76 27 41 • bergara



Bizikleta gustatzen bazaizu!

BICIPRECISIÓN IGARTUA

Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile bakarra

Iñigo Igartua



500 m², ALMAZEN eta DENDA BERRIA

BIZIKLETAK :

KARRETERAKUAK, MTB, UMEENTZAT, ESTATIKOAK, TRIAL, TANDEM eta
ZIKLO-KROSSerakoak.

Era guztietako **ERROPAK, OINETAKO** edo **ZAPATILAK**

Era guztietako **KONPONKETA** eta **ARREGLOAK**

BIZIKLETAK GARBITU eta **ENGRASE ZERBITZUA**

Zubieta kalea 5-7

Tfnoa. 943 - 76 11 21 / Faxe 76 06 75

Mobila 989 76 11 21

posta kutxa 9

20570 BERGARA

Gipuzkoa

GOL S.A. industriak

***Tornileria-estanzioa
eta extrusioa hotzean***

Tfnoa. 943 - 75 21 00

FAX 943-751712

20590 SORALUZE

Beste aurrerapauso bat

Kaixo! 1998 urteko lehenengo Pil Pilean alia nozu! Oso ondo iruditxuko jatzu ni esku artian izatia, zelan ez! Soraluze, hainbeste maitxe dogun herrixan, dauan euskera hutsezko aldizkarixa naiz eta!

Baina ez uste, zoriontasun honek eraginda, ni argitaratzia gauza simple sinplia danik. Hamaika burukomin emoten ditzut nik; badakizue duan naizela, beraz nere orrixetan publizidadia ipiniz eta beste diru laguntza batzuei esker (bai herriko komertzioak, bai Udaletxea), bizi bihar dot.

Azken 6 alieri begira egon naiz eta pentsau dot gero eta dotoriago jazten nabela. Erredakzioko jentia, nahiz eta jente oso lanpetua izan, danak dira ikasle edo langiliak, saiatuz eta sakrifikatuz, oso ondo portatzen dira nerekin. Maketazio aldetik kriston aurrerapausuak lortu ditzuzte azkenengo urtian, oin guztiz informatizauta nago, oso osorik eitzen nabe Pil Pileaneko ordenadorian, hantxe gorpuzten naiz. Publizidade arluan oreka edo ekilibriua lortu dabe, publizista on bat lantaldian sartu da eta. Heuren arteko koordinaziñua gero eta hobia da, bai kazetaritza edo peridismo aldetik, baitxa ekintza edo aktibitate organizaziño arluan be.

Beraz, eskatzen dotzuetena zera da, mesedez, hainbeste gustatzen bajatzue ni hiruhilabetero behin zuen buzoietan topatzia, kolaboratu nerekin, erredakzioko lantaldia irrikatzen dago zuen karten, eritzien edo zuek lantaldian sartzearen nahiaren zain.

Nork daki? Igual laster kaleratze frekuentzia edo maiztasuna txikitxu ahal izango da eta sarrixago izango nozue zuen buzoietan, gero eta notizia aktual eta freskuaguekin. Zuen esku geratzen da.

Ni, Pil Pilean aldizkaria, ez naiz batzuenak bakarrik, ni, SORALUZETAR GUZTI-GUZTIONA naiz (baita irakurtzia nahi naberen kanpotarrena be), maitxe neizue...

Nere direkziñua hurrengo hau da: **27 Posta Kutxatila**
20590 Soraluze

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------|-------|
| Editoriala..... | 1 |
| Gutunak..... | 2-5 |
| Gizartea..... | 6-7 |
| Gaurkotasuna..... | 8 |
| Kirola..... | 9-13 |
| Kultura..... | 14-15 |
| Plaentxi | |
| argazkitan..... | 16-17 |
| Berbak..... | 18 |
| Kale inkesta..... | 19 |
| Karnabalak..... | 20-21 |
| Musika | |
| kontuak..... | 22-23 |
| Sutondoaren | |
| epelean..... | 24-25 |
| Sukaldaritza..... | 26 |
| Txiki txoko..... | 27-28 |
| Horoskopoa..... | 29-30 |
| Lehiaketa..... | 31 |
| Hormatzulo..... | 32 |
| Agenda..... | 33 |

ARGITARATZAILE: Pil Pilean, 27 PK. ERREDAKZIO KONTSEILUA: *Gizarte saila*: Eduardo Pombar, Maite Etxeberria. *Gaurkotasuna*: Aitor Gabilondo, Maite Elizburu. *Kale Inkesta*: Amaia Aguirre, Aitziber Gantxegi. *Kirola*: Iñaki Alberdi, Juan Alberdi, Mikel Garcia. *Kultura*: Ubane eta Egoitz. *Musika Kontuak*: Pedro Deza. *Berbak*: Gurutze. *Sutondoaren Epelean*: Gorka Prieto. *Homatzulotik Begira*: Maite Etxeberria. *Kronologia*: Egoitz Unamuno, Ubane Madera, Loiola Madera, eta Sabin. *Horoskopoa*: Oskar Elizburu. *Lehiaketa*: Gurutze. *Txikitxoko*: Guru. *Agenda*: Elene Alberdi eta Maite Elizburu. ARGAZKI ARLOA: Gurutze eta Amaia. HIZKUNTZA ARDURADUNA: Pilpilean. PUBLIZITATEA: Ander Epelde. DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Gorka Prieto. TIRADA: 1500 ale. INPRIMATEGIA: K3 (Bergara). COPYRIGHT: Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea :
SORALUZETAR UDALA

ALTXORRA

Gaztia nintzanean, gogoan ditut, "Sacia" burdin lantegiko sirenak. Eguerdixan, bazkalorduan ateratzen zuen zaratia eta oroitzuten naiz lantegitik ateratzen ziren langileetaz eta herriari ematen zioten bizitzaz. Langile zintzo, epel, apal eta gogorrak, horrela gogoratzen ditut gizon eta emakume haiek; gogora erakarri dut nere haurtzaroko oroitzapen hau orain bertan eraiketa huts eta hondagarri bat bihurtu dalako eta inguruan ibiltzen naizenean bururatsen zaizkit nik boterea edukiz gero egingo nituzkeen eraiketetak, leku ezinhobean dagoenez herriaren bihotzean eta nire bihotzari galdetzen badiot, erantzuten dosta herri honek frontoi bat behar duela. Antzinatik eskupe-lota izan du bere kirol presiatuenetariko bat eta esango didate polikiroldegi bat dagoela eta honetan frontoia

egin zutela jendeak joka zezan. Baina neretzak akatsik haundietakoa da herriko kiroldegi batean kirola egiteko dirua trukean eman beharra. Horregatik eta frontoiak bizitasun berri bat emango ziolako herriari boterea eta dirua daukatenei, hauxe nire eskaera: frontoi aurrerakoi bat alboan zuhaitzez inguratutako parke batekin. Herriko bihotzean dagoenez leku ezinhobea izango litzateke kulturari dagozkion ekitaldiak aurkezteko; antzerkiak kontzertuak, zirkuak erakusketa ezberdinak, baina garrantzitsuena herri kirolari emango zion indarra, gazteok dugun zaletasunarekin herriak aurrera jarraitzeko eta animo ona sortarazteko era bakan eta ezinhobea, baina hauexek nire bururaren ideiak dira eta nik boterea ez dudanez dutenek esango dute; etxebizitza berri eta merkeagoak eraiki behar di-

rela edo gero eta kotxe gehiago dagoenez aparkaleku berri bat, baita "multisupermegamaxi" beste merkatu pareko bat edota akaso labanketa artistikoa egiteko areto bat gazteek ikas dituzaten beste herri batzutan egiten diren kirolak, gure erara baino kanpoko erara nahiago dutilako egitea, eta noski dena diru truke, zoritxarrez duan izan ziren jokuen denbora bukatzen ari bait da. Saia gaitezen bakoitzak bere erara ibiltzen eta ez kanpoko erara. Ontzat daukat munduan gero eta kultur nahasketa gehiago dagoela baina herri baten altxorra bere kultura mantendu eta berriztea denez ez ditzagun altxor faltsuaren atzean burua eta bizitza galdu, honen ordeztu gure nortasuna berreskuratzearen alde saia gaitezen.

Jose Ramon

HIRUKURUTZETAN PARKE EOLIKOA

E.A.E-eko energia eolikoaren planaren arabera, Elgeako (Gipuzkoa eta Araba artean) parke eolikoaren proiektua da aurreratua momentu honetan eta Ondurtze, Oiz eta Hirukurutzetaren kasuan, energiaren euskal arduradunek parke eolikoaren eraikuntzarako eskaria egin dute.

Hirukurutzetako parke eolikoaren eraikuntzarako eskaria onartzen bada, mendi gainean 25 haize erroten (aerogeneradoreak) eraikuntza planteatzen da.

Errota bakoitzak 40 metroko altuera edukiko du eta haue-tariko bakoitzak 20 metroko hiru aspa izango ditu. Guzti honek lau kilometroko luzeera izango du, Hirukurutzeta-Karakate ibilbide osoa izorratuz.

Garbi dago, energia eolikoak, energia eraberritua izateraren abantaila duela, eta ez dituela hondakinak sortzen bere ekoizpe-nean. Horregatik eta eguzki energiarekin batera, bere garapen progresiboa desiragarri izango litza-

teke, orain arte erabilitako energiak ordezketu balitu. Baina garbi dago orain planteatzen duten energia eolikoak ez dela beraiek dioten bezain ekologikoa. Makro-parke hauen eta hauetara heltzeko errepide desberdinen eraikuntzak sortuko duen kaltea izugarria da. Inpakto ekologiko haundia eragingo du, hegaztien bizi ingurunea kaltetuz eta hauetariko ehundaka desagertaraziz. Landaretzaren desagerpena ere eragingo du

eta zer esanik ez dago paisaian izango duen inpakto izugarriaz.

Etorkizunean asfaltozko errepideetan zehar eta itxuragabeko haize erroten artean paseatzea beste erremediorik ez dugu izango. Hauek oraingo landaretza ordezkatu dute.

- Zer gertatuko da gure mendiek gordetzen duten patrimonio historikoarekin (trikuharriak, tumuloak...) proiektu hau aurrera

eramanez gero?

- Zein da beraien helburua?

Behar dena baino energia gehiago sortzea? Zertarako? Beraien kontu korronteak gehiago loditzeko?

- Zergatik ez dute energiaren kontsumoa murrizteko sentsibilizazio kanpaina bat aurrera eramaten?

- Planteatu al dute Garoñako zentral nuklearraren ixteko posibilitatea? Euskal Herriatik gertuen da goen zentrala izanik. Edo hau ere

funtzionamenduan mantenduko dute?

- Ez al zen denontzako hobe izango energia eoliko dezentralizatuak planteatzea? Hirigune murriztuagoak hornituko lituzkeenak, eraikuntza faraoniko hauek planteatu beharrean?

Soraluzeko Eguzki

ELA-REN GUTUNA

Soraluzetar guztiei! Dakizuen bezala Euskadin bizi dugun egoera soziolaborala kezagarria da. Gobernu zentraleko presidentek aski ezaguna bihurtu den esaldi batekin ("España va bien") laburbiltzen du egoera, ustezko datu ekonomiko baikorrek eskainiz. Baina aurreko honek langileria benetako errealitatea izkutatzen du.

Populazio aktiboaren % 20a langabezia dago. Aktibitate tasa Europar Batasuneko herrialdekoena baino %6 gutxiago da, izan ere, askok eta askok lana topatzeari utzi diote. Portzertai hauek Europar Batasuneko batz bestekoa bikoizten dute eta hazkunde ekonomiko batean eman diren altuenak dira.

Kontratu laboralen baldintza txarrekin eta behin behinekotasunek egoera ekonomikoa okertzen dute. Explotazioak eta langabeziak eragin nabarmena dute hainbat sektoreengan, bereziki, gazte eta emakumeengan.

Enpresek izaten dituzten irabaziek eta ekoizpenaren hazkundeak ez dute lanik sortzen; eta ez da sortu ezin dutelako, baizik eta

enpresek ez dutelako lana sortzeko erabiltzen. Bestalde, enpresetako produktibitatearen hazkundera kontsumoa baino azkarrago hazten da eta ondorioz produktu larregi ekoizten dira eta langileak soberak daude. Enpresek langileen kopurua erregulatzeko azken urteetan zerbait metodo erabili izan dituzte; eskola adinaren luzapena, aurrejubilazioa... Baina gaur egun bide hauek agortu

dira. Produktibitatearen hazkundera sortzen duen langileen exedentari aurre egiteko bi irtenbide daude: lan orduak murriztea edo langabetu kopurua haunditzea.

Frantzia jadanik, egoera honi aurre egiteko mobilizazioak egin dituzte (Ikasleen mugimendu eta protestak, langabetuen ekintzak, astean 35 orduetara murrizten duen proiektua). Hemen, berriz, ez dugu horrelakorik egin, batez ere, sindikatu estatalek (CCOO eta UGT) izan duten jarreragatik. Izan ere, bi sindikatu hauek gobernu zentralarekin hitzartutako azken erreforma defendatzen jarraitzen baitute. Erreforma honen bitartez, gobernu eta patronalari nahi dutena egiteko aukera ematen diete; eurek

gastatu nahi duten irabazien zati bat langileak kontratatzen erabiliko dutela suposatzen dute bi sindikatu hauek.

ELAk egoera hau aldatzea beharrezkoa dela uste du eta horregatik LABekin elkartu da lana bultzatzeko asmoz hainbat ekintza burutzeko:

-Lan orduen murrizketa lanpostu gehiago sortzeko.

-Ordu extrak lanpostu berri bihurtzea.

-Aurrejubilazioak (totalak eta partzialak), baina langile berriak kontratatuz.

-Lan eta Hezkuntzaren Euskal Institutoa lan gizarteratzearen instrumentu gisa.

-Gelditzen diren Estatutuaren kompetentzia soziolaboralak.

-Diru sarrerarik ez duten pertsonentzat irtenbide ekonomikoak posibilitatzea.

Hau dela eta, laster delegatuen bilera egingo dugu. Informazioa emateaz gain gaia eztabaidatu eta data zein ekintzak zehaztuko dira. Nahi duen orok parte har dezake. Aurrez eskerrik eman nahi dizkizuegu zuen elkartasunagatik.

Che Guevararen garrak pizturik dirau (II)

Ernesto Gevara de la Sernak hau dena orain dela berrogei bat urte ikusten zuen eta horren aurrean munduko herri zapatuetara mugitzen zen matxinadak antolatzeke eta jendeari erakusteko ezin zaiela kanpoko beharrei kasu egin bertakoak alde batera utziz; nazio arteko handinahiek ez dutela garrantzirik baizik eta pertsonen ongi izateak. Zer den pertsonen ongi izatea? Tori, hona hemen adibide batzuk:

- Bizi baldintza oinarritzko batzuk **denok** edukitzea
- Inor, inoren mende ez egotea
- Bakoitzak bere inguruari garrantzia ematea eta babestea
- Edonork hezkuntzarako duen eskubidea
- Solidaritatea, e.a.

Hau dena lortzeko ezin gelditu besoak gurutzaturik herri batzuen aurrerakuntza beste batzuek behartutako atzerakuntzari esker dela ikusiz.

Afrikakoak gustora daude goseak, egarria, izurriteak e.a. jasaten edo herri aurreratuen errua da bakarrik armak eraman izateagatik eta ez lurra lantzeko tresnak edota hezkuntzarako aukerak? Bi milagarren urtean, nolatan daude horrenbeste diktadore boterean? Ez al dago diktadore horien atzean yanki, frantsez, ingeles edo edozein nazio aurreraturen interesak aurrera eramaten duen talderik, diktadorearen babesaren truke? Mexikoko indiarrek (zapatistak) EEBB-ak konkistatzeko altxatu dira edo beraien lurrak, hezkuntza, kultura edo bizi-baldintza egokiak (oinarritzko gauzak nire ustez) exigitzeko?

Gu ere, "Che" bezala, lehenik jabetu behar dugu edozein bi-degabekeriaz, ez bada armez, behintzat adieraz dezagun munduko edozein puntutan jasaten dugun justizia ezaren aurkdelatze; ez gaitzen berekoiak izan. Horren justuak eta bakezaleak bagara, nola utzi Mexikoko indigenek jasaten duten egoera tamalgarria aurrera egiten? Zer motatako agintariak ditugu Peruko Tupak-Amaruei egindako fusilamenduei txaloak eskeini dizkietenean? Nora goaz edo zer ikusi behar dugu mundu ustel eta diruzale honetan?

Gaurko gizarteak bere oinarriak alde batera utz ditzala lortzen ari dira eta gezurra eta faltsukeria da nagusi, denontzat lana aldarrikatzen ari garen heinean, lantegira joan eta ahal diren ordu extra gehien sartzen ditugu, diru gehiago edukitzeko eta horrela miloi bateko kotxea erosi beharrean, sei miloikoa erosteko; bizitzeko 80m² -ko etxe batekin nahikoa badugu, gure handinahiak 200m²-koa nahiko du eta horrela gizarte desberdintasuna areagotzen ari gara lana egiten eta lanik ez dutenen artean.

Izan gaitzen aldamenean dugunaren lagun eta lagundu diezaiegun ahal den neurrian; garbi izan gizarte orekatu bat lortzeko lana banatu beharra dagoela, hau egitea pausu ederra litzateke berdintasuna lortzeko.

Ireki dezagun gure kaska-hezur gogor hau eta astindu ditzagun gure garunak eta "Che"ren argazki baten aurrean pixkatxo batena pentsatzen gelditu ea merezi duen berak nahi zuena. Aztertu ongi azken mende honetan emandako gertakerak eta zeuen buruei galdetu ea pertsona hobeagotzen ari den eta aurrerantz goazen, edota karramarroaren antza hartzen ari garen (nire ustez atzerantz)

Ziuraski, Euskal Herriko jende askok, OTAN-i baiezkoa eman ziotenak izan ezik, aldaketa baten alde gaude eta lan egingo dugu. Horretarako gure erabakiak errespetatu egin behar dira, baina gaur egun gure lagundu nahia adierazteko lehenik gure burujabetasuna lortu behar dugu AUTODETERMINAZIOA aldarrikatuz eta orduan bai izango dela abiapuntu garrantzitsua Euskal Herria beste munduko edozein puntutako herrialde zapatuentzat.

OTAN (SEKULA) EZ !!

YANKIAK BERE ETXERA !!
(YANKI GO HOME !)

ASIER HERIZ

AUTOPISTA????.....PERSPEKTIBA EZAREN ADIBIDEA

Norbaitek beste batzuk idatzitako artikulu bati buruz bere iritzia azaldu nahi duenean, onena eta gomendagarriena, ezer baino lehen, artikulu hori irakurtzea da. Ez dirudi hau Soralezeko EAJ-ren kasua denik, Maltzaga-Urbina autopistari buruzko erantzun artikuluan "errazkerian" galdu egiten baita, eta guk planteaturiko gaiei ez diolako inondik inora erantzunik ematen.

EAJ-k dio HB gure errepideak gaur egun dauden bezala uztearen aldekoa dela. Hau gezur hutsa da eta errealitatea begiratzea besterik ez dago. Urteak dira gure bailarako komunikabideen hobekuntza eskatzen dihardugula, gure garapen sozial eta ekonomikorako beharrezkoa dela ikusten baitugu. Hau egiaztatzeko hemerrotekara jotzea besterik ez dago edo bestela Udal Biltzarretako aktetara.

Bestetik, ez ditugu erabiltzen argumentu ekologikoak aitzaki eta irteera erraz bezala. Gure ustez, errepideak bertako lurraldearen

beharrei erantzun behar die, bertako ingurugiroa hemen, zein Etxegaraten ahalik eta gehien, errespetatuz. Etaedo Tafallan, gure erabakiak beti irizpide hoiei erantzun die.

Esan beharrik ere ez dago gure herria aspalditik jasaten ari den egoera larriaren iraupenaren aldekoak ez garela. Baina autopista, gure gaitz guztiak "sendatuko" dituen zerbait bezala saldu nahi izateak, Soralezeko EAJren ahalmen eta gaitasun eza erakusten digu errealitate latz honi aurre egiteko orduan. Argi dago beste neurri batzuk behar direla. Esate baterako, A-8ak Eibarko herriak jasan duen beherakada ekonomikoa galerazi egin al du?

Edozein modutan A-8ak eta Maltzaga-Urbina autopistak, (biak peajedunak, autopista guztiak bezala)ekonomiaren aldetik, zerga gehigarri bat gehiago suposatzen dute gure industri produktuaren-tzat.

Autopista honek ez du bailara honetako herrien arteko ko-

munikazioa hobetuko. Zenbatek erabiliko genuke Bergara edo Arrasatera joateko? Soraluzek izango al zuen sarrera zuzenik bertara?

Errepidearen hobekuntzak, bai. Ordaindu beharreko errepide-rik, ez. Guretzat garapena azpiegituraren bidezko erabilpenean datza, eta ez, burugabekeria.

Honetan oinarrituta aurkeztu genuen gure proposamena Administrazioak, orain dela urte batzuk, bultzatu zuen N.I.P. ospetsu haieran. Beraz, HBk badu zer eskaini herri honi eta prest geundeke Soralezeko EAJrekin gai honetaz eztabaida publiko bat burutzeko. Soraluzetar guztiei informazio gehiago emateko bide on bat izango litzateke.

Soraluzeko Herri Batasuna



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra
hartzeko txokorik
onena!



Kalebarren 22 behea
tlnoa: 75-17-89

TAXI ZERBITZUA

Orrialde hauetatik lan desberdinen berri eman nahi izan dizuegu. Oraingo honetan Soraluzeko taxistarekin izan dugu elkarrizketa eta bere lana nolakoa den azaldu digu.

Pil-Pilean: Noiz hasi zinen lan honetan?

90ko abenduan

P.P: Zer ezaugarri izan behar ditu taxista batek?

Ezer berezirik ez, nire ustez edozein lanetan aritzeko behar direnak

P.P: Badirudi taxi batean askoz ere seguruago ikusten dugula geure burua. Zergatik?

Taxista batek jendea daramanean neurriak hartzen dituelako eta ez doalako zoroen pare. Gainera taxi batek azterketa tekniko ugari izaten ditu, horrela seguruagoa da

P.P: Atzerritar bat Donostiako kale batera eraman behar duzu, zuk badakizu ez duela Donostia ezagutzen; zuzenean eramango zenuke ala bueltak emango zenituzke gehiago kobratzeko?

Zuzenean eramango nuke.

P.P: Ziur zaude?

Bai, bai, baldin badakit zuzenean nola heldu, bai, -dudarik gabe.



Soraluzeko taxista

P.P: Ez diozu kotxeari eta errepideari nazkarik hartu honetan diharduzunetik?

Ezta pentsatu ere, lan hau oso gustukoa dut.

P.P: Egunero lan egiten al duzu?

Bai, egunero.

P.P: Eta asteazken batean goizeko 3'30etan deitzen badizute ere bai?

Beno, bidai luzea izan badut eta berandu oheratu banaiz ez dut telefonoa hartzen, ez litzatekeelako oso zuhurra izango nahikoa lo egin gabe zerbitzu bat egitea.

AKELARRE TABERNA

Bokatak, pizzak eta kazuelitak

Tlfnoa: 753102

SORALUZE

ALAITZ TABERNA

EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE

**ZERBITZU
BATEN DIRUA EZ
DA DENA
TAXISTARENTZAT**

P.P: Zeinek gidatzen du hobeto, emakumeak ala gizonak?

Nire ustez antzerako, nahiz eta emakumeak zuhurragoak izan, horregatik istripu gutxiago izaten dituzte. Dena dela, pertsonaren arabera izaten da hori.

P.P: Taxia garestia da?

Gainetik ikusita baietz ematen du baina zerbitzu baten dirua ez da dena taxistarentzat, autonomoak, kotxearen gastuak,... e.a. ordaindu behar dituelako, beraz ez da garestia. Gainera, tailer batean pare bat ordutan taxista batek arratsalde osoan irabaz dezakeena baino gehiago irabaz daiteke, hor egon behar duzulako, mugitu gabe, nahiz eta ordu askotan lanik irten ez.

P.P: Taxistengana jendea aitormenak egitera joaten dela esaten da. Zuri bezeroek beraien bizitzaren gorabeherak kontatzen dizkizute?

Beno, bai, badago gauzak kontatzen dizkizun jendea, baina beti kontatu nahi dutena kontatzen dizute.

P.P: Anekdotak ugari izango dituzu. Kontaiguzu horietarikoren bat.

Behin mutil bat etorri zitzaidan eta galdetu zidan ea Eibarrera eramango nuen. Heldu ginean, itxoiteko esan zidan, bere anaia etorriko zela ordaintzera eta ez zela agertzen ikustean, mutila sartu zen tabernara joan nintzen. Orduan beste mutil bat etorri zitzaidan eta ea ni nintzen bere anaia ekarri zuena galdetu zidan. Baietz esan nion eta ea Santa Agedara eraman nezakeen galdetu zidan. Ni harrituta gelditu nintzen eta ez nekiela esan nion, berak orduan ez zela arriskutua erantzun zidan. Buelta erdi hartu eta berarekin berriro Santa Agedara joan nintzen.

P.P: Eta jende asko gelditu zaizu ordaindu gabe?

Zorionez, asko ez, baina bat edo beste bai. Gainera gogoratzen dut bat... Honek zin egin zidan hurrengo egunean ordainduko zidala eta ez balitz nire asmazio batengatik ez nukeen kobratuko.

**ARMENDIA
JATETxea**

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

**ARRANO-TABERNA
SORALUZE**



MARTXA eta BORROKA

LAN MERKATUA DEBA BEHEAN

Euskal Autonomi Elkartearen zerbitzu sektorea nagusi den bitartean, Deba bailara bai Garai eta bai Behean industria sektorean oinarritzen dute ekonomi iharduera.

Industria sektorean, batez ere garrantzia dute metalen eraldaketarako industriak eta manufaktura industriek, maila baxuagoa izanik industri kimiko eta inguruetik baliabideak lortzen dituzten iharduerak, hala nola energia eta urari loturikoak.

Zerbitzuei dagokienez, hezkuntza eta osasunaren partaidetza da garrantzitsuena komertzial ekintzak eta bankak jarraituta.

Deba Behean industriari loturiko lanbiderik pisutsuenak mekanikoa, muntatzailea eta ajustadoreak izango lirakeke. Emakumeak berriz, saltzaile edo eta zuzendari lanbideetara zuzentzen dira poliki-poliki.

Hamasei-hogeitalau bitarteko gazteen langabezi tasa altuagoa da, lan merkaturatzea beranduago ematen baita.

Deba Behe bailaran gizonezko populazioa nagusi da, berrogeitabost urte baino gehieagoko populazioa hain zuzen ere.

Hogeitabost eta berrogeitalau urte bitarteko langilegoak iharduera tasa altuena izango du.

Emakumearen partaidetza ekonomi ihardueratan gizonarekiko baxuagoa da, Euskal Autonomi Elkarteko maila ezin gaituz.

Hala ere, emakumeen partaidetza sektore industria-lean goraka doa urtetik urtera.

Gazteek portzentai altua betetzen dute eraikuntza-rekin zerikusia duten lanbideetan.

Langabetu gehienek lana bilatzeko unean, euren arreta bizitokitza duten udalerrri edo eta lurralde historikora zuzentzen dute, mobilitate eskas baten seinale izanik, eta INEM instituzioaren partaidetza murrizten doa lana aurkitzeko erreztasunean.

Begibistakoa da emakumearen partehartzea lan merkaturan goraka doala gizarteari so eginez gero. Jadanik atzean geratu da emakumeak etxean egon behararen ustea, emakumea goi mailako lanpostuetara bideratzen doa, egun, bai emakume eta bai gizonen hezkuntza maila berdinean murgil baitaitezke.

| Sexua Aldagaiak | GIZONAK | EMAKUME |
|---------------------------|---------|---------|
| POPULAZIO | 28758 | 29265 |
| 16 URTETIK GORAKO POP. | 27200 | 27500 |
| IHARDUERA TASA | %64,5 | %38,4 |
| LANGABEZI TASA | %15 | %34,8 |
| HEZKUNTZA INDIZEA | %94,8 | %92,4 |

Iturria.: EGAILAN, 1995.

PINTURAK • MARMOLIZATUAK • GREKOAK
ZORUEN ETA HORMEN ERREBESTIMIENTUAK

Hnos. ARRUBARRENA ANAIK

Telefonoak: (943) 75 18 14
75 18 15

SORALUZE (Gipuzkoa)

ATXOLIN TABERNA
Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tlfnoa: 75 21 31

Soraluze

MARKOS: SORALUZETAR BAT GEHIAGO

Markosek Soraluze Futbol taldean jokatzen du. Soraluzek beti izan du kanpoko jendea, eta Markos da honen adibide; jokarlari honen kasua desberdina da; besteak ez bezala, Markosek txikitatik jokatu izan du Soraluzen. Bere kasua nahiko berezia da; berak, bere ikasketak Bergaran egin ditu eta normalena hemengo talderen baten jokatzea izango litzateke. Hala eta guztiz, bera hobeto ezagutzeko asmoz, berari hurbil gatzazkio:

Noiz hasi zinen Soraluzen jokatzen?, zer mailatan?

Orain dela zazpi urte, jubeniletan.

Nola hasi zinen Soraluzen jokatzen?

Nire klasean, Soraluzeko entrenatzailearen semea zebilen eta komentatu zidan, jende aldetik larri zebilela Soraluze. Orduan, galdetu zidan ia beraiekin jokatzea gustatuko litzaidakeen eta baietz esan nion, froga bat egin zidaten eta onartu ninduten.

Zeintzuk izan dira Soraluzen bizi izan dituzun momenturik onenak?, eta txarrenak?

Onenak, orain dela bost bat urte.

Azken partidua irabaztea beharrezkoa genuen maila mantentzeko; arerio Legazpiko Ilintxa taldea zen. Partidu hura 1-0 irabazi genuen eta gainera gola nik sartu nuen.

Txarrenak, hurrengo urtean izan ziren, urte hartan erregionaleko lehen mailatik bigarrenera jeitsi ginen.

Zein izan da izan duzun entrenatzailearik onena?

Bi entrenatzaile izan ditut gus-tuko, Zarobe, berak ekarri nindue-



Kirolariek ere Pil Pilean irakurtzen dute.

lako eta Jose Luis Leon, azken honen izan nituen harremanak oso onak izan ziren.

Nolakoa da Soraluzeko afizioa

beste talde batzuen afizioarekin konparatuz?, berotzen al dira?, tokiren bat aipatzeko?

Soraluzeko afizioa nahiko hotza da, kostatzen zaio animatzea; bakkarik animatzen da, epailea oso txarra denean. Afiziorik beroenak kostaldekoenak dira, adibidez Zumaiakoa, Ondarrukoa... Hemengo afizioak asko presionatzen du.

Zer beharko luke Soraluzek mailaz igotzeko?

Orain arte jokatzen ari den bezala aritzea eta tokatzen zaizkigun epaileek hainbeste min egingo ez baliagute nahiko erraz berreskuratuko genuke maila.

Nola ikusten duzu Soraluze Futbol Taldearen etorkizuna?

Emaitzek laguntzen baidute etorkizuna baikortasunez ikus dezakegu. Jendeak taldean jarraitzeko, oso garrantzitsua da emaitz onak lortzea.

Zein da zuretzat munduko talderik onena?, eta jokalaririk onena?, eta Soraluzeko jokalaririk onena?; Athletik-a ala Erreala?

Gehien gustatzen zaizkidan taldeak Milan eta Manchester United dira eta jokalaririk onena, gaur egun jokatu ez arren, Van Basten.

Soraluzen, berriz, badaude hainbat jokalarik ongi jokatzen dutenak, baina norbait aipatzearren, Iosu Moia aipatuko nuke.

Azken galderari dagokionez, zalantzarik gabe, Errealak.

Zein postutan jokatzen duzu gusturago?

Ezkerreko hegaletik. Hau izan da nire betiko postua.

*Soraluzeko afizioa nahiko hotza da eta futbol zelaian neska-
ren bat ikustea miraria da.*

Nere burua zaintzen dut baina partidurik onenak irten izan naizenez jokatzen ditut.

Bigarren maila erregionalean, gogorkeri asko ematen al da?



Pitu baloiarekin maisu bat da.

Izan al duzu inoiz arazorik? Non handiena?

Batzutan bai. 2. mailan gogorkeria gehien erabiltzen duen taldeetariko bat Ondarruko Aurrera da. Normalean ez dut izaten iskanbilarik, baina behin gogoratzen dut, Soraluzen jokatzen ari ginen partiduan, baloia zelaiaren beste aldean zegoela eta beste jokalarik bat eta ni elkar joka ibili ginela.

**Daramatzazun urteetan, neska-
kak futbola ikustera azaldu izan
al dira?**

Lehen, neska gehiago joaten zen, orain berriz, bat ikustea miraria da.

**Noren aurka ipintzen duzu
gogo gehien?**

Ni partidu guztietara irtetzen naiz motibaturik, baina norbait aipatzekotan, Debako Hamaikak Bat esango nuke.

Partiduak dituzunean errespetatzen al duzu aurreko eguna parrandarik egin gabe? Inoiz arazorik izan al duzu?

Nire burua zaintzen dut eta ia gehienetan irtetzen naiz, ordubiak arte gutxi gora behera. Gainera, partidurik onenak irten izan naizenez jokatzen ditut.

FLASHA:

1. Soraluze ala Bergara?

Soraluze, askogatik.

2. Gustukoen duzun zenbakia?

Zazpia eta hamarra.

3. Instalazio txarrenak non?

Zestoan.

4. Neskak: Soraluzekoak ala Bergakoak?

Soraluzekoak.

5. Giroa: Soraluze ala Bergara?

Soraluze.

6. Gol txaparradarik handiena non?

Alde, 16-1, Eibartarrak taldearen aurka eta jaso dugun gol txaparradarik handiena, Seguran 10-0.


7. Soraluzeko jendearekin ze moduz?

Primeran.

8. Mezu bat:

**AUPA
SORA!!**

LASKURAIN: Pil-pilean dagoen pilotaria



Laskurain joko ikaragarria erakusten ari da.

Callesek, Muguruzak eta Garziak, pilota utzi zutenetik bera da gaur egun Soraluzen emaitziko onenak lortzen ari den pilotaritariko bat. Lortu duen azken arrakasta, DV-ETB Txapelketan eman zen; Laskurain, ospe handia duen txapelketa honetan finalerdietara heldu zen, baina hau ez da lortu duen arrakasta bakarra, besteak beste Espainiako binakako txapelketan eta GRAVN banakako txapelketan, Laskurain txapeldun izan genuen 1997an. Gehienok ikusten duguna emaitzak izaten dira, baina hauek eman daitezten beste gauza batzuk ere kontutan hartu behar dira, elkarrizketa honetan, Laskurainek argituko dizkigunak hain zuzen ere.

1. Noiztik daukazu pilotarekiko zaletasuna?

Madarik ikastolan txapelketa bat antolatu zuenetik.

2. Nor arduratzen da zure prestakuntzaz?

Soraluzeko pilota taldea orokorki.

3. Asteazken bat ordu emanen dituzu entrenatzen?

4 bat ordu astean, gimnasiokoak kontutan izan gabe.

4. Pilotari on bat izateko zeintzuk dira kontutan hartu behar diren aldagaiak?

Aurrelari ona izateko, ezker airez ondo sartzea, jokoan trebea izatea eta berezko zerbait.

5. Pilotan gauza batzuk lortzeko, beste batzuk utzi behar al dira?

Bai, zure burua asko zaindu behar duzu zerbait lortzeko, asko entrenatu eta ilusioa eduki.

6. Jendeak jarraitzen dituzkan jokatuak dituzun partiduak?

Banaka batzuk, gehienbat partidu garrantzitsuak direnean.

7. Etorkizunik ikusten al duzu Soraluzen pilota mailan?

Nire ustez bai, gaztetxoaren artean afizio handia baitago.

8. Posible ikusten al duzu profesionaletan jokatzeko?

Beti daude aukerak baina oso zaila ikusten dut.

9. Gustuko duzun beste kirolen bat?

Txirrindularitza.

10. Gorria ala urdina? Zergatik?

Urdina. Suposatzen dut futbolarik izango dela.

11. Pilotari bat, frontoirik ederrera eta non partidurik onena?

Pilotaria Eugi; frontoiak Ogeta eta Adarraga; partidurik onena Soraluzen, Azkoitikoaren aurka, herri artean jokatzen den txapelketan.

12. Pilotan ospea lortuz gero, gehiago ligatzen al da?

Oraingoz behintzat ez, berdin jarraitzen dut.

13. Anekdotarik?

Behin partidu bat geneukan eta bi ordu lehenago deitu ziguten aretarioak ezin zirela etorri esanez, nik ordurako takoak ipinita neuzkan.



Hnos. BENITO ANAIK

MUEBLES-ALTZARIAK

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**BATZOKI
TABERNA**

Kalebarren 26

Tlf: 75-12-12

SORALUZE

KIROLARIAREN TXOKOA; ROBERTO MENDIZABAL (KARATEA)

1. **Esaldi bat.**
Ondo ibili, gutxi gastau eta bueltak amari.
2. **Soraluzetarrentzat mezu bat.**
Animatu eta zatozte karate egitera.
3. **Karatea ez den kirol bat.**
Futbola.
4. **Amets bat.**
Aurtengo tanborrada iazkoa be zain ona izatea.
5. **Animali bat.**
Gamusinoa.
6. **Neska batek behar du izan...**
Alaia.
7. **Lotsatzeko motibo bat.**
Zerbait ordaintzeko orduan dirurik ez izatea.
8. **Soraluzeko toki bat.**
Biritxiki.
9. **Zer falta zaio Soraluzeri?**
Aireportua eta metroa.
10. **Eta zuri?**
Jai egunak.
11. **Gustuko janari bat.**
Rape-a.
12. **Musika talde bat.**
Mana.
13. **Telebistako programa bat.**
Lurra 2.
14. **Irakurri duzun azken liburua.**
Taichi.
15. **Edari bat.**
7 urteko Habanazko kubata.
16. **Bizitzeko:Soraluze ala hiriburu bat.**
Soraluze.
17. **Oporretarako toki bat.**
Abaltzisketa.
18. **Negar egin duzun azken aldia.**
Amonaren hiletan.
19. **Munduarentzat nahi bat.**
Pakea.
20. **Anekdota bat.**
Kimonoa hankatartetik apurtu zitzaidan, eta klasea utzi behar izan nuen.



BOLIA TABERNA

Tlf: 75-11-04
SORALUZE

W D U R T Z A

KAFETEGIA
SORALUZE



Erretegi
Jatetxea
ESOZIA


Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia eta bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE
Telefona: 752375

SORALUZE-SORALUZE ALDE EZKUTUA



Ibilaldiko maparen irudi bat

Zenbaki honetarako prestatu dugun irteera, Soraluzen gutxien ikuskaturiko ingurunea da: Txurruken auzotik irten eta 612 m. dituen Krabelinaitz mendira igoko gara. Bi bide daude, bata pistatik jarraituz eta bestea Salon baserria baino gorago dagoen bidezidorretik jarraituz. Biek, Untzeta -Gaineko baserriraino eramango gaituzte.

Jarraian, baserritik aurrera joanda dauden bidegurutze guztietan ezkerretara hartuko dugu.

Hemendik jada, ikusten da Krabelinaitz tontorra, Sasibeltz edo Untzeta-Mendi ere deitua. Hasierako ibilaldi honetarako 1h16' inguru behar dira.

Ondoren, gailurretik behe-rantz jarraituko dugu eta pista bati jarraituz, Gallastegitorre auzora helduko gara. Bidexka hau hasieran nahiko zikina da.

Etxeetatik eskumatara 100 metrotara, hesi bat dago, berau pasatu eta erdiko bideari jarraitu behar zaio "tendido elektriko" batera heldu arte, jeitsi apur bat eta beti erdiko bideari jarraitu hurrengo bidegurutzetan. Borda baten ondoan dagoen lepo antzeko leku batera helduko gara, gure ezkerretara Garbe, 530m.tako tontortxo bat aurkitzen delarik, 2h15' inguru eman ditugu ibiltzen orainarte.

Garbera igotzen bagara, ondoren berriro ere jeitsi beharko dugu gure bideari jarraitzeko. Borda ondoko malda gogor batzuk jarraitu behar dira eskubiko bidea alde batera utziz. 2h 25' ibiltzen goazelarik beste lepo bat ikusiko dugu. Lepo honen bide ingurunean, "mojoi" bat aurkitzen da (Bergara eta Elgetaren arteko muga). Berau atzean utzi behar da ezkerreko bidea hartuz eta beste malda gogor bat igoz. Ibiltzen hasi garenetik 2h35' pasatu direnean bidegurutze bat topatuko dugu. Bertan, ezkerreko bidea hartuko dugu eta 10' inguru pasatu ondoren,

beste bidegurutze batetara helduko gara. Oraingoan, erdiko bidea hartu beharko dugu. Gure aurrean, Azkonabitzen aurkitzen diren antenak agertuko dira segituan.

Orduan, bideak ezkerretara bideratuko gaitu eta guk berau piska batez jarraituko dugu ezkerretara dihoan bide ertzeko malda bat igoz. 3h10' pasatu dira ibiltzen hasi ginenetik eta Azkonabitza tontorrera heldu gara, 726m. eta bi buzoi dituen. Bertatik, paraje ona ikusten da: Oiz, Udalaiz, Anboto, Aizkorri e.a. Ondoren, beherantz joateko, mendebalderantz jo behar dugu baso-bide bat hartu arte eta jarraian zementozko bide bat hartuko dugu. Azken bidean beherantz joko dugu Azurtza auzoraino. Hortik aurrera, 15 minutuz pista jarraitu ezkerreko, 671m. dituen Galdaramiño tontorra dago. Bukatzeko, Azurtza auzotik aurrera dagoen 5km.tako asfaltatutako bidea ordu betez jarraituz, Sorluzera bueltatuko gara.

OHARRAK:

- Kontuz bidegurutzeetan, asko-baitaude eta nahiko hondatuak baso asko bota baitituzte.

- Aurki daitezkeen atesareak itxi, baserritarrek eskertuko digute.

Soraluzeko Mendi-Taldea

Santa Ageda eskean baserriz-baserri

Otsailaren 7an sapatu goizez 10 laguneko talde bat atera zen Santa Ageda eskean baserriz-baserri. Goizeko zortzi t'erdia aldean Plaza Berrian elkartu eta Ezoz aldetik ekin zioten ibilbideari. Baserri bakoitzean dozena erdi bat koplakantatuz igaro zituzten "autoz" Ezoz, San Andres eta Txurruka Auzoko baserriak, trikitalari, panderojole eta pare bat koplakari berderekin. Umore ederrean egun guztia pasa zutelarik nahiko jan eta edanaz. Eguna ondo bukatzeko Txurruka jatetxean afari ederra burutu zuten, ondoren kalean kristoneko erromeria eduki zutelarik. Esan digutenez gau horretan ez zen musika faltarik somatzen Plaentxiko kale nahiz tabernetan, hauek zebiltzan tokian ez baitzegoen bakerik, hala ta guztiz, jendeak eskertu zuen halako jaigiro jatorra herrian sortzea, lehengo ohitura zahar haiek berrituaz.

Beraiek eskatuta baserriar denei eskerrak ematen dizkiegu hain adeitsu portatzearen jendilaje honekin eta hurrengo urterarte esanaz hona hemen koplakantatu:

*Ikusitzen det baserrietan
umore ona dagola
nahiago nuke kalian ere
izango balitza hola*

*Ardi ta behi asto ta txakur
hemen danetik daukate
hemengo jauna egin behar degu
Plaentxiako alkate*

*Jana ta edana ugari eta
danetik degu probatu
kale aldean kontauko degu
nola zeraten portatu*

*Santa Agedai bularra moztu
horrela izan zan hila
hori ein zion gizon gaiztua
inpernura joan dadila*



Muneta baserrian hamaiketako egin ondoren.

ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskatzaileak
Ranuratzailak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona (943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)



ELECTRICIDAD

GANTXEGI

ELEKTRIZITATEA

Errekalde, 2 Apdo. 104

TELF.: 75 19 59

SORALUZE

TODA CLASE DE INSTALACIONES Y REPARACIONES DOMESTICAS E INDUSTRIALES. PORTERO AUTOMATICO ACUMULADORES DE CALOR PARA TARIFA NOCTURNA.

Nagusien Euskal-Jaia aurten Soraluzen izango da

Aurten, maiatzean, Soraluzen bailarako nagusien dantza-taldeak bilduko dira ez-ohiko Euskal-Jai bat eskeintzeko asmoz. Izan ere, urtean behin ospatzen den jaialdi honetan, dantzariak bereziki ikasitako Nafarroako, Lapurdiko eta Arabako dantzak ikusi ahal izango ditugu.

Orain urte batzuk, Oñatin, bailarako nagusien Euskal-Jaia egiten hasia erabaki zen euskal kulturaren atal honetan maila altuagoa lortzeko asmotan. Honetarako, dantza berriak ikasten hasi ziren eta baita inguruotako herrietako taldeen arteko harremanak sendotzen ere.

Honela bada, hainbat dantza eta txistu ikastaro burutu ostean, azkenean nagusien dantza taldeak kalera irten ziren dantzara, urtean behin bailarako herri desberdin batean ospatzen den jaialdi berezia antolatuz.

Soraluzeren sarrera

Gure herrrian, berriz, duela hiru urte sortu zen "Urrats", nagusien



"Urrats" dantza taldea Bergarako Euskal-Jaian

Soraluzeko Nagusien I Euskal-Jaia

E
G
I
T
A
R
A
U
A

Goizez

Kalejira: dantza-talde bakoitza herriko kale desberdinetan arituko da. Ondoren alarde moduko batean, guztiak batera egingo dute dantza, herri bakoitzak dantza berezien aurkezpena eginez. 2:00etan poteoa izango da eta ondoren polikiroldegira zuzenduko dira guztiak bazkaltzera.

Arratsaldez

Ohi bezala alardearekin hasiko da arratsaldea beronen ostean erromeria ere izango delarik.

dantza taldea, asmo honetan parte hartu ahal izateko. 18 pertsona dabilta dantza talde honetan. Eta nahiz eta zailtasun nahikoa jasan, lan eta lan aritzen dira bai ikastaroetan zein antolakuntza mailan nagusien talde honi jarraipena eman ahal izateko. Jadanik mota honetako beste bi jaialditan parte hartu dute, lehenengoa Bergaran 1996an eta bigarrena Aretxabaletan urte bete beranduago eta aurten gure herrian ikusi ahal izango ditugu beste talde batzuekin batera. Eskoriatzatik, Arrasatetik, Bergaratik, Oñatitik, Antzuolatik eta argitu gabe sorpresa moduan utzi duten beste tokiren batetik etorriko dira dantzariak eta txistulariak euren saioak erakustera.



GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE



SAN BLAS EGUNA:

Aurtengoan ere joan zaigu San Blas eguna, aspaldiko ohitura gure artean.

Otsailaren 3an, San Blas izeneko jaia ospatzen da, katarroen kontrako "antidoto" ezin hobea denaren sineskeraren arabera. Katarro hauek sendatzeko, ohitura da egun horretan elizara bedeinkatzera eramaten diren opilak biltzen dituzten zapiak urte osoan bere horretan gordeta edukitzea eta noizbait katarroren bat harrapatuz gero, zapi hori lepõan lotzea gaixoari.

Denbora modernizatu ahala, jendea, zapiez gain, haria bedeinkatzen hasi zen. eta gaur egun denetarik sartzen da opilaren zapiaren barnean, laranja, mentazko goxokiak eta badago zigarroak ere bedeinkatzen dituenik.

SUTEAK SORALUZEN:

Gure herri honetan, suteak gertaera nahiko ez-ohikoak eta izan arren, hiruhilabete honetan bi sute ikusi ahal izan ditugu jasan behar izan dutenen zoritxarrerako. Lehenengoa, urte hasieran Atxuri auzoko almatzen batetan gertatu zen. Bertan, galera nahikoa sortarazi ziuelarik suak Bigarren sutea, aldiz, otsailaren 6an gertatu zen, goizaldeko 5etan. Kasu honetan, hiru solairutako etxebizitza oso kaltetua suertatu zen, izan ere sua piztu zeneko etxebizitza zeharo triskalduta gelditu bazen ere, beste biak kalte ugariak jasan izan zituzten suhiltzaileen eraginez. Zorionez, ez zen zauriturik izan ez sute batean ezta bestean ere.



HARITZ LASKURAIN PELOTARIA OMENDUA:

Martxoaren 4an herriko pelotari honi omenaldia egin zioten eskuz binakako Espainiako txapelketan irabazle izatearren Eibarko Bengoetxea pelotariarekin batera. 18 urtetako gazte honek herriko Kirol Bazkunak oparitutako oroigarri bat jaso ondoren bere omenezko hiru partidu ikusi zituen, azkenengoa berak ere jokatu zuelarik.

Aldizkaritik ere zorionak luzatu nahi dizkiogu etorkizun haundiko gazte honi.

PLAENTXIARRAK TXAPELDUN EUSKARAOKEAN


Otsailaren 9an Euskaraokea etorri zen Plaentxiara, kantuan abilezia haundiena nork zuen epaitzeko asmotan. Arratsaldeko bost t'erdietan Erregetxean hasi zen lehiaketan herriko neska-mutil askok abestu zuten. Baina guztiek maila ona agertu zuten arren, onenak soilik pasatu ahal izan ziren Miramonen jokatu zen final haundira. Aipatzekoa da atera zuten puntuazio haundiari esker lau talde pasa zirela Euskal Herriko herri guztien artean jokatu zen finalera.



Otsailaren 16an jokatu zen finalean ezustean Plaentxiarrak suertatu ziren garaile, bai karaokean bai dantzaoketan ere. Karaokean gainera lehen eta bigarren postuak lortu zituzten, lehen postuan Iraider Garcia eta bigarren postuan Eneko Berraondo suertatu zirelarik. Dantzaoketan "Aqua" taldeak lortu zuen hainbeste desio zuen lehen postua. Ikusten dugunez plaentxiarrak oso ondo burutu zuten Otsailaren 16an jokatu zen finalean beren betebeharrereko lana.

Zorionak eta ondo pasa Futuroscope eta Port Aventura aldean!

BITXIKERIAK



JAIOTZE-TASA HARRIGARRIA:

Jakina da orohar biztanlegoa gero eta zaharragoa dela "Lehenengo Mundu" deituriko honetan jaiotze-tasaren jeitsieraren ondorioz. Plazentzia, noski, parametro hauen barmean sartzen da eta gaur egun herriko jaiotze-tasa nahiko baxua izaten da normalean.

Baina oraingo hiruhilabete honetan sorpresa nahiko haundia hartu dugu herrian bi biki pare jaiotze direla jakitean eta gainera soilik lau egunetako diferentziarekin. Irudiotan, Ane eta Miren Lazkano dauzkagu, beste biak, berriz, Eva eta Maria deitzen dira. Agian hemendik aurrera herrian gertatuko denaren adierazle dira lau haurtxo hauek.



KATUAK ETXERA NAHI:

Argateburu baserrian noizbehinka bakarrik gertatzen dian hoietakoa bitxikeri bat gertatu da. Etxeko bi katu Azkoitxi aldeko beste baserri batera eraman zituen eta ezustian lehenengo bat eta beranduago bestia bueltan etxera etorri. Itxura danez, Argateburun Azkoitxin baino gustorago omen eta etxera buelta egiteko erabakia hartu zuten.

Hauek bai katu fidelak!!!

PLAENTXIAKO BERBAK

-ERLAMIÑUA: Erlastarra, erlea baino handiagoa eta iletsuagoa. Erlea baino txikiagoa eta koloretsuagoa denari ere horrela deitzen diotenak badaude.

Adb. Uxaizue umian inguruan dabilen erlamiñu hori !!!

-FOBALLA: futbola

A dib. Beti **foballian** ibiltzeke, hobe ziñuke esamiñetarako estudixatzia

-GARAUA: Galanta, oso handia, kristona.

Adb. Hori da mutikote **garaua** dakan edaderako!

ESAMOLDIAK

-FIRIN FARAN IBILI .Ardurarik gabe eta alai ibiltzeari deitzen diogu.

Adb.. -Ez daka golperik jo beharrik loterixia tokau jakonetik hor dabil, beste zereginik barik ,kalez kale, **firin faran**.

-GABONETAN KEIXAK: Ezinezkoa eskeintzen denean esaten dena.

Adb..-Hemendik aurrera neuk ingo ditzut etxeko lan guztiak

.-Bai eta **gabonetan keixak**

-GOSE ANTZA: gose modukua, jateko gogua..

Adb. -Jesus Maria ta Jose horrek dia tripa horruak !

-Bai, **gose antza**.

YON IÑARRA

HARATEGIA ETA URDAITEGIA

KALEBARREN, z/g Tfnoa. 751249
SORALUZE

Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana 20

Tlf: 751241

SORALUZE

Zelan ikusten dozu asteburuetakoa ambientia Soraluzen?




Amaia Ruiz

23 urte

Langilea

Asko jeitsi da. Lehen ostiraletan zerbañt gehixau egoten zan eta oin ez da jenderik irtetzen. Udaletxeak edo tabernarixek zeozer egin biharko zeben.




Gorka Arana

23 urte

Mekanikoa

Hilda dago. Gauean ez dago ezer nahiz ta egunez poteoan ikusten dan pixkat gehixau. Oin dala urte pare bat krisisa egon zan eta oin jendea etxian gelditzen da



Lurdes Uzin

39 urte

Umezaina

Eskasa, jende gutxi egoten da. Barixakuetan gehixau eta sapatuetan oso gutxi, kanpora irtetzen dau jendiak.




Aitor

22 urte

Mekanikoa

Gero eta pobriagoa. Jende gehixena herri handixauetara joaten da, ikasten daben lekuan irtetzen dau jendiak. Festibaletan be, jende gutxi egoten da, baina merezi dau bertan gelditzia.




Jabi Izagirre

19 urte

Ikaslea

Ez da txarra, baina hobia izan leiken. Ni batzutan hemen egoten naiz eta beste batzutan kanpoan. Gehixenetan arratsaldetan kanpoan, gainera modak egoten dira, Elgoibar edo.



Maite Orbea

21 urte

Ikaslea

Azkenaldian pixkat bajatu egin da, ze lehen ostiraletan egoten zan. Ni hemen urtetzen naiz, jendia bertan urtetzen animau biharko zan.



ITXAROPENA
TABERNA
SORALUZE

Etxaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30

José y Antonio, J. K.

IGELTSERITZA OROKORRA


Gabolás, 19 - 1º esk. - ☎ 75 11 14
Rabal, 7 - 3º - ☎ 75 24 49

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)



Pil pileanekook karnabal gauean lanean aritu ginen, benetan lan atsegina, begira bestela zer nolako mozorroekin egin genuen topo. Denetarik zegoen, deabruak, sorginak, behiak, extralurtarrak...eta hemen dituzue gau zoragarri horretan aurkitu genituen zenbait mozorro...

Ihauteri eguna



“V”ko extralurtarrak , gauean Igo saria...




Askatasunaren estatuak, gauean ohorezko saria...



Deabruak , arratsaldean Igo saria irabazi zuten



Gaua animatu zuten ganberro/a kuadrilla...



Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik...



Elektrikak...



TARIRO ...TARIRO...



AIDA BEHIXAK!!! MUUUUUUUUUUU!



Ludotekako jaialdia



Txanogorritxo dut izena...

“7 ESKALE ABERATSAK”

Lau urte pasa dira, Basaurin, euren lehenengo pausoa eman zutenetik. Hasiera batean hiru laguneko proiektua zena, gerora zazpi laguneko talde batean bihurtu zen eta Aekaren eskutik egin zuten bira txiki bat Euskal Herrian zehar 1994an. Hurrengo urtean beraien lehenengo diska grabatu eta gero, Euskal Herriko punta batetik bestera ibili ziren pobrezia-aren inguruko erreflexioak aireatzen.

Orain, urtebete luzeko prestaketa-lanen ostean, beraien bigarrenengo emaitza gozatzeko aukera luzatzen digute herriko “Gaztelupeko Hotsak” zigiluaren eskutik. Antzerki-musikal baten bidez, drogen inguruko ikuspegi zabal batetik “Barrenkaleko Bluesak” lana aurkezten digute oso instrumentalizazio bereziarekin.

Urtarrilaren 17an, izan genituen gure artean eta Unai Iturriagari hitz batzuk lapurtu genizkion.

NONDIK DATOR TALDEAREN IZENA?

U.I.: Beno, aurreko lana egin genduenetik dator, pobrezia-aren inguruko lana egin genduen eta izen bat behar zen. Zazpi lagun ginenez, ba “7 Eskale” jarri genduen.

NOREN IDEIA IZAN ZEN HALAKO EMANALDI BAT ANTOLATZEA?

Aurreko lanetik etorri den gauza bat izan da. Aurreko lana amaitzerakoan, losuk bazuen buruan beste formato baten egitea lan berria, batez ere musika aldetik, formaziño akustiko bateaz edo ... Aurrekuaren ondorioa dela esan leike.

ZER DA ZAILAGOA, BERTSO EDO KONTZERTU ON BAT EGITEA?

Biak dira zailak, ez? Baina oso ezberdinak dira, kontzertuak beste lan mota bat eskatzen du. Aurretik lan pila

bat egin behar da hau prestatzeko. Fisikoki, dudarik gabe, lan haundiagoa honek eskatzen du.

ZUK ZER NAHIAGO DUZU, ZEREKIN DISFRUTATZEN DUZU GEHIEN?

Beno, ni bertsolaria konsideretan naiz. Hemen betetzen dudana papela bigarren mailakoa dela esango dugu. Baina argi dago guztiz ezberdinak direla. Hemen gauza berdina errepikatu behar dira jendearen aurrean ahal den ongien eta bestean, badakizu, bat batean sortzen da.

BERTSOLARIARENA SERIOAGOA?

Ez, keba, ez dauko zertan, bietan disfrutatzen dugu asko.



**NOLA JARRI ZARETE HARREMANETAN
GAZTELUPEKO HOTSAKEKOEKIN?**

Aurreko diska egin genduen Iruñako ÇOR disketxearekin oraingoan berriz, ez ginen ados jarri eta *Zaharra* eta beste "pandilla" losuren aspaldiko ezagunak ziren eta besterik ez genuelako euren gana joan ginen. Çero eduki genduen beste oferta bat, baina hauek hain burugogor ipini ziren... Çu saiatu ginen esaten ez gastetako gugaz dirua, baina... Benetan, ez gara bat ere damutzen eurekin egin izenaz eta gozada bat izan da, tratuan, produktuaren mimoan... Uste dut azertau dugula.

**NOR ARDURATZEN DA ESPEKTAKULOA
ONDO JOAN DADIN?**

Jode! Ba geu. Hau prestatzeko urte-bete eman dugu, losuren etxean lanean, bai diskoa prestatzen eta batez ere hasiera batean kantuak egiten, ze honen aurretik, lehenengo gidoi bat egin genduen, pertsonai batzuk erabaki eta horren ostean kantuak eta letrak. Hori diskora begira, eta orain lantzen gabizena, oindiño berde xamar dagoena, zuzenekoa, ba elementu berriak sartzeana eta hori, baina batez ere esan leike bihotza edo, lgor, losu eta hirurok garela.



Urtebeteko lana behar izan dute "7 Eskale"koek honelako emanaldiak burutzeko jende aurrean. Soraluzen giro apartaz gozatu genuen.

BETIKO KANTAK**"GUK EUSKARAZ, ZUK ZERGAJTIK EZ?"**

*Guk euskaraz, zuk zergaitik ez?
Euskara putzu sakon eta ilun bat zen
eta zuek denok urgazi bat atera zenuten
handik nekez.*



*Guk euskaraz, zuk zergaitik ez?
Orain zuen birtutez zuen indarrez
euskara itxaso urdin eta zabal bat
izanen da eta geuria da
Guk euskaraz, zuk zergaitik ez?*

Hitzak: Gabriel Aresti
Musika: Urko

“Londres mundu txiki bat da”

Ion Basauri eta Mikel Gartzia, 22 eta 19 urteko bi mutilgazte dira. Azken hilabeteotan Ingalterra aldean ibiliak dira beroiek. Bertara integratu, ingles ikasi eta lan egitera joan ziren. Beraien esperientzia

guztiz aberasgarria izan zaiela baieztatzen duten gazte hauek, herritar askori interesatuko zaizkien gauzak kontatu dizkigute ale berri hone-tarako, ondorengoa da kontatu zigutena. /Gorka Prieto.

Biok izan zarete Britainia handian baina non zehazki?

Ion: Ni Londresen 6 hilabete.

Mikel: Ni egon naiz Borough-bridge izena zeukan herri baten, Ingalterrrako iparraldean 8 hilabete, eta azken 15 egunak Londresen.

Zein helbururekin joan zineten?

I: Nik hemen ikasketa batzuk utzi nituen, 6 hilabete libre nituen, eta ingles piskat ikasi, lan piskat egin eta paraje haiek ezagutzera joan nintzan.

M: Ingles piskat ikastera eta hura ezagutzera.

Eta bete al zenuten zuen helburua?

I: Bai, ingles piskat ikasi dut. Gainera han jendea nola bizi den ere ikusi dut, zer bizimodu daramaten. Londres mundu txiki bat da, Londres Londres da. Jendea mundu guztikoa dago, baita kolore guztietakoak ere.

M: Nik uste dut baietz. Ingles piskat ikasi dut. Eta oso inportantea den gauza bat ere ikasi dut: ama ez dagoenean geure burua zaintzen.

Zuen ustez, kanpotarrak lanean explotatu egiten al dituzte?

I: Neurri batean bai. Nik adibidez izan nituen lehenengo bi lanak desberdinak izan ziren, platerak garbitzen nahiko ondo

irabazten nuen baina lan desererosoa zen, eta hamburgeseria batean nahiko gaizki, han frantses, italiar, beno jentuzak guztiak lan egiten zuten eta miseria bat ordaintzen zidaten eta gainera managerra beti puteatzen zegoen.

“Garbitu izkina hori!” esaten pasatzen zuten eguna. Ezin ninduen segundu bat ere geldi ikusi. Bai explotatua sentitu nintzen.

M: Nik uste dut bertako hizkuntza ez dakiten kanpotarrak bai explotatzen

dituztela. Argi dagoena da lan txarrenak kanpotarrentzako direla, inglesak inoiz ez dituzu platerak garbitzen ikusiko.

Nolakoa da gazteen bizitza han, juerga aldetik?

M: Ni herri txiki batean egon naiz, eta han jende guztia hamaiketarako etxean zegoen, eta hemen izaten ditugun juergen antzekorik ere ez.

I: Londresen dena guztiz desberdina da, gazteak eta zaharrak, denetarik ikusten duzu. Han hamaikak laurden gutxitan tabernetan kanpai bat jotzen zuten, eta handik aurrera ezin zen gehiago edaririk eskatu.



Ion eta Mikel gustora bueltatu dira herrira.

JOSETXO Ardangela

PINTXO ETA OGIBITARTEKOEN
ESPEZIALITATEA

Atxuri, 9

SORALUZE

Tlf: 75-15-71

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!!

Tfnoa: 752440

SORALUZE

Hamaiketan dena itxi egiten zuten; night club batzuk izan ezik, diskoteka antzekoak.

Ligatu al zenuten?

I: Inglesitak ez zuten nahi hanburgeseruekin ligatzerik.

Zer iritzi daukazue neska ingleseki buruz?

M: Fisikoki hemengoak baino askoz eskasagoak dira. Ikusi dudana ostera, sexu munduan gazteago murgiltzen direla.

I: Niri denborarekin gero eta gehiago gustatzen zitzaizkidan. Ilehoriak, altak eta diti mardulekin...

Elkarren berri izan al zenuten han zinatela?

I: Nik banekien Mikel han zebilela.

M: Niri ere Ionen lehengusuak karta batean kontaktu zidan han zebilela. Baina ez genuen elkar ikusi.

Beste euskaldunik topatu al zenuten Jesukristoren lur galdu haietan?

I: Bai, mordo bat. Han espainiarrek ea Euskal Herria utzik laga genuen galdetzen ziguten, denok Londresen ginelako.

M: Ni, lanean izan nintzen hotelean, pare bat astean Bilbotar batekin topatu nintzan.

Gomendatzen al diozue jendeari horrelako esperientzia bat?

I eta M: Bai, bai.

Bueltatzeko asmorik bai?

M: Bueno, zeozer bai, egunen baten beste nonbaitera.

I: Nik badaukat bueltatzeko gogo, baina orain Unibertsitatean hasi naiz berriro eta oraingoz ezin dut. Londresera heldu nintzen egunean esan zidan tipo batek: "Hona etorri baldin bazara behin, gero beti bueltatzeko gogo izango duzu."

Arrazoia zeukan. Bueltatzeko desiatzen nago.

Zein da zuentzat ingelesez hitzik politena?

M: Wages (soldata).

I: Superb. Gertatu zitzaidan hotel batean lanean izan nintzenean, amerikar batzuri mailek gelara igo eta txukun txukun utzi nizkien, eta tipoak eskerrikasko esateko, behatz lodia goruntz zuela "Superb" oihukatu zuen. Hain gauza orteroa iruditu zitzaidan gustatu egin zitzaidalda.

Eta zatarrera?

M: Waiter (Kamareroa).

I: Washing up (Fregaua).

Anekdotak bitxiarik?

M: Behin goizeko hiruretan denok lo geundela Londresen hotel batean, logelak zortzi pertsonatakoak ziren, literekin, tipo bat heldu zen eta bere litera beste batek okupatuta zuela ikusi zuen. Iskanbila txiki bat montatu zen. Itxura denez, rezepziokoek litera bera bi pertsona desberdini saldu zieten gau berdinerako.

I: Niri ingelesek galdetzen zidaten zein ote zen nere benetako izena, eta nik esaten nien Ion zela, baina ez zuten sinisten. Inozo hoiak uste zuten ni Ion deituarazten nintzela hobeto integratzeko beraien kulturara edo...

Ausartuko al zinatekete, ingelesez agurtzen elkarriketa?

M: Take care of yourself, baby.

I: Bai, bye-bye.



Londresko Big Ben famatua.



GRETELUPE
TABERNA

Telefonoa: 752031

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S. A. L.

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
Tf.: (943) 75 21 50
Faxa.: (943) 75 21 18

SORALUZE

PATRICIA RAMOS

Non ikasi duzu?

Elgoibarren ikasi dot, Bide Egin eskolan, guztira hiru urte egon naiz sukaldaritza ikasten. Gero Angiozarren egon nintzen praktketan eta ondoren Eibarko taberna batean. Orain beste gauza batzuk ikasten ari naiz lanen bat aurkitu arte.

Zein da zure espezialitatea?

Oraingoz ez daukat espezialitaterik, denetarik pixkat egin dot; gozogintzan, sukaldean, pintxoak...

Zeintzuk dira zure helburuak?

Sukaldaritza munduan jarraitzeko asmoa daukat. Pintxo bereziak egitea oso gustoko dot.



Patricia Ramos

ARRAIN PUDING-A

OSAGAIAK:

- Kipula erdi.
- 7 arrautza.
- 1/4 litro tomate.
- gatza.
- 1/4 litro nata likidoa.
- Piperrautsa.
- 2 arrain xerra.

ELABORAZIOA:

Ontzi bat gurinaz eta ogi birrinduaz igurtziko da janaria bertan itsatsi ez dadin. Kipula erdia zatikatu eta sutan jartzen da bigundu arte. Gero arrain zatiak gehitzen zaizkio dena ondo egin arte. Ondoren arrautzak ,nata likidoa eta tomatea botatzen zaizkio, birringailuaz dena ondo nahastuz.

Gatza eta piperrautsa botako zaio norberaren gustoaren arabera.

Azkenik nahasketa guztia ontzira bota eta prest dago labean sartzeko, "baiñu maria"n 180°C-tan gatzatu arte.

Jaki hau hotzean zerbitu beharra dago.

Maionesaz lagundurik goxo-goxoa egongo da.

On Egin!

Kontulan Aholkularitza, S.L.

Asesoría Empresarial

Santa Ana, 13 • 1. Ezk.
Telf (943) 75 117 82

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

Argitarpen honen editorea laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
Kontularen ón*



Euskaraokean giro aparta...

Plaentxin sekulako maila!

Otsailaren 11n Euskaraokea grabatu zuten Soraluzen. Gaztetxoentzat egun berezi, alai eta dibertigarria. Aurkezleak makinatxo bat herritan egon omen dira, baina, ez dantzan eta ez abesten ez dute Soraluzetarron parekorik topatu. Puntuazioak inon baino altuagoak izan ziren eta horren ondorioz bi taldek eta bi abeslarik final nagusian parte hartu zuten. Eta hori gutxi balitz lau sari nagusietatik hiru etxera ekarri zituzten.

Ez daukate meritu makala!!!



**Eneko
Berraondo**
10 urte
5.maila

Ze sari lortu duzu?

Soraluzen lehenengo gelditu nintzen eta finalean bigarren, sariak, berriz, Portaventurara bidaia, Walkmana, 2 kompakt eta kamiseta.

Sekula egin al duzu horrelakorik?

Bai behin Txirri, Mirri eta Txiribitonen programan nire arrebarekin abestu nuen.

Zer sentitzen da kameraren aurrean?

Nerbixuak, Miramonen Soraluzen baino urduriago nengoen.

Entrenamendu bereziren bat egin al duzu?

Etxean ordu laurden bat 2 aste lehenago edo.

Hemendik aurrera parte hartuko duzu horrelakoetan ?

Bai ziur abestuko dut, niri gustatuko litzaidake abeslari izatea...



**Iraider
Garcia**
12 urte
7.maila

Ze sari lortu duzu?

Soraluzen bigarrena izan nintzen eta final nagusian lehenengoa. Sariak Futurokopera bidaia, 4 kompakt eta kamiseta.

Sekula egin al duzu horrelakorik?

Ez inoiz ere ez. Aurkezleak harrিতuta zeuden oso lasai abesten nuelako.

Zer sentitzen da kameraren aurrean?

Plaentxin pixkat urduri nengoen nire familia eta ezagunak zeudelako, baina Miramonen lasai lasai.

Entrenamendu bereziren bat egin duzu?

Etxean noizean behin.

Hemendik aurrera parte hartuko duzu horrelakoetan?

Bai, nik nahiago dut dantza egitea, izan ere hori zen nire asmoa, baina kuadrilan 6 ginezez batek abestu beharra zeukan, azkenean konbentzitu nintzen eta begira, zelako ondo



Bai Soraluzen eta bai finalean txapeldunak!!

Ane Larreategi
Ane Ugalde
Arianne Unamuno
Eguzkine Aldazabal
Ainitze Oruesagasti

**ZORIONAK
ETA SEGI HORRELA!!!**

Sekula egin al duzue horrelakorik?

Bai karnabaletan eta ikastolako ekintzetan parte hartu izan dugu. Emaitz onekin gainera!!

Ze sari jaso duzue?

Soraluzen eta finalean lehenengo saria irabazi genuen. Futuroskopera bidaia walkman bat , 2 KD eta kamiseta.

Zer sentitzen da irabazterakoan?

Kriston ilusiñua. Poza, ezin genuen sinistu. Pentsau, heldu ginenean agurra dantzatu genuen Udaletxe parean.

Egin al duzue entrenamendu berezirik?

Ez jolasorduetan bi aldiz edo ensaiatu egunero, eta nahikoa.

Zergatik aukeratu zenuten abestia?

Beraiek lau kantu eman zizkiguten aukeratzeko eta itxurosuna Barbie Girl iruditu zitzaigun.

Hemendik aurrera parte hartuko duzue horrela koetan?

Bai , asko gustatzen zaigu dantza egitea eta kantatzea eta jarraituko dugu.

Aspalditik prestatzen dituzue koreografia bereziak?

Bai, Superbaterako, karnabaletarako, ikastolarako eta aerobickeko exhibizioetarako. Beraz nahiko esperientzia daukagu.

Zer sentitzen da kameraren aurrean?

Agian jendearen aurrean dantza egiteak lotsa gehiago ematen digu baina kamararen aurrean ez dugu urduritasun berezirik sentitu.

Eta bukatzeko hemendik Hollywooodera...

...Nahi bai!!! Badaezpada gure telefonoa nahi baduzue jarri Pilpileanekoekin kontaktuan... ja, ja, ja...

HEMEN JOAN DAITEKE ZURE
PUBLIZITATEA.
GURE HELBIDEA
27 POSTAKUTXATILA

PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA



Aries:

Osasuna: Udaberria badator, epel eta jator, atera hadi paseatzera fraka motz eta ator. Gorputz garbiketarako sagarra.

Dirua: Burtsa gora eta gora eta zeure diruak geldik! aberastekotan mugitu behar!

Maitasuna: Txoriak egingo dizu kuku eta zu harro harro, atzera jo eta izkutatu, ez zaitez izan karramarro!




Taurus:

Osasuna: Alergia da zure sudurra eta begiei gertatzen zaiena. Mukizapiek erosi.

Dirua: Gasturako izugarritzko joera etorriko zaizu aste santu garaian, ez begiratu ere egin txartelari eta zaindu poltsikoa

Maitasuna: Musutxuak aurten muki eta guzti, bai gozoak.e! Alergiak ez duela kutsatzen azalduiozu!



Gemini:

Osasuna: Gripe alu honek ez zaitu pakean utziko, beraz ohean ordu dexente sartu, atsedean haartu eta doministiku!

Dirua: Udaberrirako jantzi berriak beharko dituzu, duzuna ondo erabilia dirua denetarako helduko zaizu. Gero udarako arropa barik ere!

Maitasuna: Atsedean hartuz gero eta dotore jantzita, paregabekoa zara! alboko "plastak" uxatzeko gailua erosi beharko duzu.



Cancer:

Osasuna: Gripea izan duzu bai, baina zelako udaberri osasuntsuak datorkizun, hori txollua! Odol emaleetan sartu.

Dirua: Ospatu beharko zenuke zure sasoi bikain hori, oporrak hartu, animatu ingurukoak eta xahutu diruok!

Maitasuna: Eman ezazu zeuretik gehiago, inizatiba hartu, ez egon eta egon... pausua zeuk emon!



Leo:

Osasuna: Gogorik gabe ezertarako indarge, buruko minak...ez da ezer larria halere, karakate aldera igo, kirol piska egin eta ez jan horrenbeste!

Dirua: Euroak on egingo dizu ekonomia orokorrari zeuri bost axola ordea, asko duenari asko etorriko zaio, baina ez dagoenean...

Maitasuna: Mantsoegi zabilta garai honetan, barietatea behar duzu, egin buelta bat "Goenkaleko" taberna berritik.



Virgo:

Osasuna: Jan jan eta jan! ez al dakiziu besterik egiten? Fruta jango bazenu sikiera... Garizuman gaude eta baraua egin!

Dirua: Lagunari bonolotoa tokatzeak izugarri poztu zintuen, eta? eman al dizu zerbait? zer uste zenuen bada!

Maitasuna: Landareen pare, ernetu egingo zara garai honetan, "irtenda" ibiliko zara nonbait, baina irteerak irten ez izan kirten!

Arandela Pulituen Fabrika
Standard Tipoa, Din eta Zeta
Araua, eredu edo planoen
araberako Estanpazio Lanak

 **estampaciones LAGA, S/a.**

Industrialdea
Telef. (943) 75 23 50 - 75 19 85
Telefaxa (943) 75 17 02

41 posta kutsadila
20690 - SORALUZE
(Gipuzkoa)

LAU ELEKTRAETXEA



Instalakuntzak, konponketak
Argizatze estudio eta proiektuak
Industriarako automatismo, bobinatuak, ...
Elektragarintzari dagozkion zerbitzu guztiak, Soraluzen: LAU

**Libra:**

Osasuna: Iaz idorreria, aurten behe-rakoa! kokakola epela edan eta geldituko duzu.

Dirua: Komuneko paperean horrenbeste gastatu izanak porrotera eraman

zaitu, hau desastrea! ongi libratu!

Maitasuna: Ligatzeko astirik ere ez duzu, behin zita izan eta komunera joan behar ere!! Lastimak ere erakartzen du bikotea, kontaziozu!

**Eskorpio:**

Osasuna: Hain zara lasaia, bihotz onekoa,... gaixo zaudenean ere lanera. Eta denek diote, hori beti sa-soitsu!

Dirua: Zure lagun maite horrek besteekin egiten dituen parandatan gastatzen dizkizu sotsak.

Maitasuna: Akerraren adarrak zuzendu beharrak... bai ematen dizula lana e? Okerra jaio dena ezin zuk jarri, ondokoa berriz, larri!

**Sagitariu:**

Osasuna. Horrelako pisu aldaketarik ez zaizu komeni, pertsonalitatea ere aldatuko zaizu aurki...

Dirua: Eskiatzeko botak erosi eta orain eskiatzera joateko dirurik ez,

txiste gat ekarri didazu burura, ezagutzen duzu?

Maitasuna: Maite, maite, maitea... zu zara nirea, zu zara ...nigarra!

**Capricornius:**

Osasuna.: Aldapan gora estu, lautadan justu eta beherantz... edonori apustu, hanka onak baina fondoa... Ez erre!

Dirua: Urteak langabezian daramatzazula eta buru makur...! baina lana aurkitzeko bilatu behar da, ikasi, mugitu...

Maitasuna: Zeure burua gehiago maitatu behar duzu, ez narzisismoaraino helduta baina bai zaintzeko eta mimatzeke beste.

**Acuarious:**

Osasuna. Sagardotegitik sagardotegira ibiltzeak on egin dizula dirudi "mejorauta" ikusten zaitut. Sagarra izan ere ezinhobea da.

Dirua: Ametsa egi bihurtu zaizu. Aurten oporrak eta ez edonolakoak hotela, eguzkia, lasaitasuna... Aprobetxatu azkena izan leike eta!

Maitasuna: Txerri goseak ezkurra amets. Noiztik zabilta ligeetan baraurik? Lasai auartengo oportxo hauek "konpletoak" "izango dira eta.

**Piscis:**

Osasuna: Aerofagia, puzkar bat eginda,...joe! zeure ondoan ezin da! akuakolonia apur bat erosi eta disimulatu!

Dirua: Lan gehiago egingo bazenu osasuntsuago biziko zinateke. Lan fisikoa, ipurdia mugitu, paseatu...

Maitasuna: Alda ezazu alkondara noizbait! beste bat emango duzu, usaia aldatuko zaizu eta "hori" ere animatuko zaizu, Itxurak ia dena egiten du!



PASCUAL CHURRUGA, S. A.
TORNILLERIA ESTAMPADA

ERREKALDE 21
Telef. (943) 751600 eta 751604
Faxa (943) 752461

20590 SORALUZE
(Gipuzkoa)

SAN ANDRES
ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA

Rabal, 2

SORALUZE


Tlf: 751646

ZEIN DA AINGERUTXO HAU???



Bidali segiduan erantzuna eta zure gustuko musika entzun dezazun “KD” bat oparituko dizugu!!

Zure izena eta telefonoa.....
Zein da ?.....



Otsailaren 21ean urrezko belarritako bat galdu zen, norbaitek aurkitu badu mesedez jarri kontaktuan Pilpileanekoekin.

JAIOTAKOAK

- Maria Vergel Benito (98-1-18)
- Eva Vergel Benito (98-1-18)
- Julen Gomez Zazo (98-1-10)
- Ane Lazkano Etxeberria (98-1-12)
- Miren Lazkano Etxeberria (98-1-12)
- Elsa Berrueta Iñurrieta (98-2-5)

HILDAKOAK

- Demetrio Galan Doncel
- Juana Matas Muguruza
- Sabina Oregi Leturiondo
- Eloisa Lancha Arroyo
- Antonia Orbea Gallastegi
- Emilia Garcia Marki
- Danel Catalan Arenaza
- Angel Ariznabarreta Otalora
- Jesus Alberdi Azkarate
- Carmelo Arenaza Elorza
- Gabino Berraondo Lamarain
- Jesusa Baskaran Mugica
- Domingo Sagasta Rubio
- Clara Gabilondo Larrañaga
- Josefa Ariznabarreta Larreategi
- Victoria Eneida Urria Rekalde
- M. Angeles Azkarate Aseginolaza
- Elias Azkona Garcia
- Celedonio Calleja Ortiz

Aurreko aleko (8. zenbakia)
lehiaketaren irabazlea:

**JON
ZERREJON**

izan da



Hauek izan dira ale honetan beraien laguntza eskaini dutenak:

**Juan Ma Argazki Denda
Mendata Taberna
Lakuesta Optika
Marisa Ileapaindegia
Klip Paper Denda
Auresku Taberna
Erlei Nobedadeak
Karmelo Mendizabal
Iratxo Gozotegia**

**Ibai Ondo Burdindegia
Mari Mar Harategia
Jose Perez Pinturak
Zelia Arropa Denda
Bitori Etxeberria Bitxitegia
Moises Altuna Harategia
Otaharri Liburudenda
Renault Elkarte Autoak
Begoña Txurruka Urdaitegia**

AGENDA

MUSIKA ESKOLA:

Musika Eskolako urterako udaberri kontzertua. Berau *martxoak 13an* ospatuko da, ostirala arratsaldeko *7etan*, Soraluzeko polikiroldegiko *zine aretoan*.

Gazteen Abesbatza, Musika Eskolako banda eta instrumentu ezberdinez goza ahal izango delarik, hala nola, pianoa, txistua, klarinetea, bibolina, soinua, kitarra, tronpèta, saxoa....

LEHENENGO TXIRRINDULARITZA SARIA SORALUZEN

Soraluzeko Kirol Bazkunak antolaturik maiatzaren 10ean Soraluzen lehen txirrindularitza saria ospatuko da, nazio mailako izaera izanik. Parte hartuko duten txirrindularien adina 23 urtetik beherakoa izan beharko da. Lasterketa 10etan hasiko da eta ibilbidea ondorengoa izango da:

| HERRIA | BIDE ERREFERENTZIA | PUNTU KILOMETRIKOA | LASTERKETA KILOMETROA | ORDUTEGIA 40 Km/h |
|-------------------------------|--------------------|--------------------|-----------------------|-------------------|
| SORALUZE (POLIGONOA) | GI-627 | | | |
| SORALUZE | GI-627 | | 0 | 10,00 |
| OXINTXU | GI-627 | | 2 | 10,03 |
| BERGARA | GI-627 | | 8 | 10,12 |
| SAN PRUDENCIO | GI-627 | | 13,5 | 10,20 |
| ARRASATE (EPELE) | GI-627 | | 14,6 | 10,22 |
| CAMPAZAR (P.M.) | GI-632 | | 20,5 | 10,31 |
| ELORRIO | BI-632 | | 28 | 10,42 |
| ABADIANO | BI-632 | | 35,5 | 10,53 |
| MATIENA | BI-632 | | 36,5 | 10,55 |
| ZALDIBAR | N-634 | | 43 | 11,04 |
| AREITIO (P.M.) | N-634 | | 46 | 11,09 |
| ERMUA | N-634 | | 50 | 11,15 |
| EIBAR | N-634 | | 52,5 | 11,19 |
| MALZAGA | GI-627 | | 56 | 11,24 |
| SORALUZE (SARI BEREZIA) | GI-627 | | 59 | 11,28 |
| OXINTXU | GI-627 | | 62,5 | 11,33 |
| BERGARA | GI-627 | | 68 | 11,42 |
| ALTOS HORNOS | GI-627 | | 69 | 11,44 |
| ASENSIO (CRUZE) | GI-3360 | | 74 | 11,51 |
| ASENSIO (P.M.) | GI-3360 | | 77,5 | 11,56 |
| CAMPAZAR | GI-2639 | | 82,5 | 12,04 |
| ELORRIO | BI-632 | | 90 | 12,15 |
| ABADIANO | BI-632 | | 96,5 | 12,25 |
| MATIENA | BI-632 | | 99 | 12,28 |
| ZALDIBAR | N-634 | | 105 | 12,37 |
| AREITIO (P.M.) | N-634 | | 108 | 12,42 |
| ERMUA | N-634 | | 112 | 12,48 |
| EIBAR | N-634 | | 115 | 12,52 |
| MALZAGA | GI-627 | | 118 | 12,57 |
| SORALUZE (KAÑONES-EN HELMUGA) | GI-627 | | 121 | 13,00 |

SORALUZEKO

æk

EUSKALTEGIA



Maisuen etxea

Tfnoa. 943 75 14 34

SORALUZE